Xedapen Orokorrak

INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

Zk-524

AGINDUA, 2003ko abenduaren 16koa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena. Honen bitartez, dorre-garabietan jarri behar diren anemometroak arautzen dira, baita dorre-garabi eta autopropultsatutako garabien inguruko bestelako xedapenak ere.

Jasogailuei eta mantentze-gailuei buruzko erregelamenduaren «MIE-AEM-2 eta MIE-AEM-4» jarraibide tekniko osagarriak onartu zituzten ekainaren 27ko 836 eta 837/2003 Errege Dekretuek, hurrenez hurren; obretan eta bestelako aplikazioetarako erabiltzen diren dorre-garabien, eta garabi-mugigarri autopropultsatuen ingurukoak dira, eta arlo horretan ezarri beharreko irizpide berriak zehaztu ziren.

Garabia haize-mugara hel daitekeen tokian kokatua badago, anemometroa jarri beharko zaio horrela xedatzen baitu aipatu 836/2003 Errege Dekretuaren 5.4 artikuluak. Haizea dela eta, garabia eror ez dadin baliabide eraginkorra da anemometroa, horregatik haizearen abiadurak eragin ditzakeen balizko egoera arriskutsuen berri izan beharko du garabilariak. Horrela, 50 km/orduko haizea dagoenean hartu beharreko neurriak hartu ahalko ditu, eta beharrezko denean, eten egingo du martxa baita garabia zerbitzuz kanpo jarri (haize-orratz eran) ere. Halaber, kontuan hartu behar da dorre-garabiek gehienez jasaten duten haizearen abiadura 72 km/ordukoa dela. Beraz, muga horretara hurbiltzen diren egoerak ekiditu beharko dira, are gehiago jakinda abiadura berehala igo daitekeela.

Horregatik guztiagatik, betebehar hori zehatzago arautu behar da, hau da, dorre-garabi guztiek gailu hori eramateko betebeharra, baita anemometroek eta haien instalazioak bete beharreko baldintzak ere.

Horretaz aparte, 836/2003 Errege Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorrak hiru urteko epea ezartzen du eskarmentua egiaztatua duten, edo, prestakuntza espezifikoa duten dorre-garabiko operadoreek dagokien txartela eskura dezaten; eta arlo honetan txartelak ematea arautua duten autonomia erkidegoek epe txikiagoa ezar dezaketela dio. Maiatzaren 17ko 175/1994 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoan txartelen inguruan dagoen araudia jasotzen duenez, bidezkoa dirudi txartela lortzeko balizko iragankortasuna zehaztea, bai-

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

Nº-524

ORDEN de 16 de diciembre de 2003, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regulan los anemómetros a instalar en grúas torre y otras disposiciones relativas a grúa torre y grúas autopropulsadas.

Los Reales Decretos 836 y 837/2003, de 27 de junio, han aprobado, respectivamente, las nuevas instrucción técnica complementaria «MIE-AEM–2 y MIE-AEM–4» del Reglamento de aparatos de elevación y manutención, referente a grúas torre para obras u otras aplicaciones y para grúas móviles autopropulsadas, estableciendo nuevos criterios de aplicación en dicha materia.

El artículo 5.4 del citado Real Decreto 836/2003, impone la instalación de anemómetro en las grúas que vayan a instalarse en una zona donde puedan alcanzarse los vientos límite de servicio. Debe considerarse que el anemómetro es una herramienta eficaz para prevenir del riesgo de caída de las grúas por efecto del viento, por lo que el gruista debe conocer las situaciones peligrosas que pueden producirse por efecto de la velocidad del viento, para tener la debida precaución en el manejo de la máquina cuando se superen los 50 km/h, parando el funcionamiento si es preciso y colocando la grúa en la posición de fuera de servicio (en situación de veleta).Hay que considerar, así mismo, que las grúas torre no están diseñadas para soportar vientos superiores a 72 km/h en condiciones de servicio normal, por lo que deberán evitarse las situaciones próximas a dicho límite, teniendo en cuenta además que la velocidad del viento puede incrementarse de forma muy rápida.

Todas estas consideraciones hacen necesario regular de forma más precisa la obligación de que todas las grúas torre dispongan del citado dispositivo así como las condiciones que deben tener los anemómetros y su instalación.

Por otra parte, la disposición transitoria primera del Real Decreto 836/2003 establece un periodo de tres años para que los operadores de grúas torre existentes con experiencia demostrada o que dispongan de la formación específica adecuada, obtengan el correspondiente carné, indicando que las Comunidades Autónomas que tuvieran regulada la expedición de carnés en esta materia, podrán establecer un plazo inferior. Existiendo en la Comunidad Autónoma del País Vasco regulación al respecto, recogida en el Decreto 175/1994, de

ta operadore horien txartel profezionalekin zerikusia duten bestelako inguruabarrak ere. Dekretu horretan txartel profesionalak eskuratzeko prozedura bateratu zen, eta industriako segurtasunaren arloan instalazioak, mantentze-lanak eta bestelako jardunak egiten dituzten enpresa baimenduentzako betebeharrak definitu ziren.

Bukatzeko, kontuan hartu behar da, Industria Sailak arau bat betebeharrekoa edo betearaztekoa dela adierazi ahalko duela behar horren justifikazioa erkidego horren eskumeneko interes publikoaren babesa denean; hori horrela da Industria Kalitateari eta Segurtasunari buruzko azaroaren 25eko 275/1986 Dekretuaren 8. artikuluak, azken xedapenetako lehenengoarekin bat eginik, esaten duenaren arabera.

Honenbestez, azaroaren 25eko 275/1986 Dekretuaren azken xedapenetako lehenengoak xedatutakoaren arabera,

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA
ANEMOMETROAK

1. artikulua.– Anemometroa jartzeko beharra.

Jartzen diren dorre-garabi guztiek izan beharko dute ekainaren 27ko 836/2003 Errege Dekretuaren 5.4 artikuluak xedatzen duen anemometroa, kokalekuan garabia martxan egon ahal izateko haize-mugara heltzeko arriskua ez dagoela justifikatzen den kasuetan izan ezik. Dekretu horrek Jasogailuei eta mantentze-gailuei buruzko erregelamenduaren «MIE-AEM-2» jarraibide tekniko osagarri berria onartu zuen, obretan eta bestelako aplikazioetarako erabiltzen diren dorre-garabien ingurukoa.

2. artikulua.– Anemometro mota.

Anemometroak honako osagaiak izango ditu:

– neurgailu edo sentsore (haizegailu, helize edo zeregin hori egiten duen beste sistema).
– seinalea tratatzeko sistema (bulkada-zenbatzaile optoelektrikoa, sistema elektromagnetiko edo elektrikoa).
– aurrealarmako argi-seinalea, 50 km/orduko haizea dagoen momentutik: etenkakoa, laranja edo horia.
– alarmako argi-seinalea, 70 km/orduko haizea dagoen momentutik: etengabekoa eta gorria.
– hots-seinalea (sirena, burrunbagailua, ...): etenkakoa 50 km/orduko haizea dagoen momentutik, eta etengabekoa 70 km/orduko haizea dagoenetik.
– abiaduraren aldiuneko balioa ikusteko pantaila (aukerakoa).
– abiaduraren erregistragailua (aukerakoa).

3. artikulua.– Ekipoaren ezaugarriak.

17 de mayo, por el que se unifica el procedimiento para la obtención de los carnés profesionales y se definen las exigencias para las empresas autorizadas que realizan las instalaciones, mantenimientos u otras actividades en materia de seguridad industrial, resulta procedente concretar la posible transitoriedad para la obtención del carné, junto con otras cuestiones relacionadas con los carnés profesionales de estos operadores.

Por último, hay que tener en cuenta que, en el artículo 8 del Decreto 275/1986, de 25 de noviembre, sobre Calidad y Seguridad Industrial, en relación con su Disposición Final Primera, se prevé la posibilidad de que el Departamento de Industria pueda declarar la obligatoriedad de una norma o su exigibilidad cuando las razones que justifican su necesidad se integran en la protección de intereses públicos cuya competencia corresponde a esta Comunidad.

En su virtud, de acuerdo con lo establecido en la referida Disposición Final Primera del Decreto 275/1986, de 25 de noviembre,

DISPONGO:

CAPÍTULO I
ANEMÓMETROS

Artículo 1.– Obligatoriedad del anemómetro.

Todas las grúas torre que se instalen deberán disponer del anemómetro indicado en el artículo 5.4 del Real Decreto 836/2003, de 27 de junio, por el que se aprueba una nueva Instrucción técnica complementaria «MIE-AEM-2» del Reglamento de aparatos de elevación y manutención, referente a grúas torre para obras u otras aplicaciones, salvo que pueda justificarse que en la zona de la instalación no puedan alcanzarse los vientos límite de servicio.

Artículo 2.– Tipo de anemómetro.

El equipo del anemómetro constará de los siguientes elementos:

– Captador o sensor (molinete, hélice u otro sistema que realice esa función).
– Sistema de tratamiento de la señal (contador de impulsos optoeléctrico, sistema electromagnético o eléctrico).
– Señal luminosa de prealarma a partir de 50 km/h: intermitente y de color anaranjado o amarillo.
– Señal luminosa de alarma a partir de 70 km/h: continua y de color rojo.
– Señal acústica (sirena, zumbador, ...): intermitente a partir de 50 km/h y continua a partir de 70 km/h.
– Visualizador del valor instantáneo de la velocidad (opcional).
– Registrador de velocidad (opcional).

Artículo 3.– Características del equipo.

1.– Ekipoaren osagai guztiak eskura izango dira, bai mantentze-lanak errezteko bai instalazioa edo desmuntatzea, kasuan kasu, errezteko.

2.– Ahal bada, neurgailu edo sentsore anemometrikoa garabiaren goiko aldean kokatuko da, hain zuzen ere, metalezko egiturak babestua gelditu ezin den tokian, edonola ere ikusgai izango da lurretik begiratua.

3.– Alarmako argi-seinalea hots-seinalearekin batera ariko da martxan (hobe obra osoan entzuten den sirena bada, eta maniobra abisatzeko bozina edo burrunbagailuaren soinu ezberdina duena). Hots-seinalea desgaitu ahal izateko (ahal den neurrian ekintza hau automatikoki gertatuko da), garabia haize-orratz eran jarri beharko da. Garabaia berriro martxan jartzean, kasu guztietan, hots-seinalea berriro operazionala izan beharko da.

Aurrealarmako argi-seinalea etenkako hots-seinalearekin batera ariko da.

4.– Argi-seinaleak garabilaria ikusteko moduan jarri beharko dira; ahal bada, garabi-besoaren beheko partean jarri ere, dorretik ahal den hurbilen, botoiak dauden tokian edo kabinan.

5.– Haizearen aldiuneko abiadura jarraian ikusteko pantaila badu ekipoak, garabilariak haizearen abiaduraren eboluzioa jarrai dezan jarriko da.

4. artikulua.– Alarmak aktibatzea.

1.– Aurrealarma aktibatuz gero, garabilariak, bereziki azalera handiko zamak manipulatzen ari bada, arreta-neurri bereziak hartuko ditu garabia erabiltzean, haizearen abiadura handitu edo haize bolada gogorragoak egon baitaiteke; kasu horietan garabia haize-orratz eran jarri beharko da edo, kasuan kasu, erabilera murriztu.

2.– Alarma aktibatuz gero, garabilariak zama lurrean jarriko du, eta hori egitea posiblea ez bada, ahalik eta lasterren bukatu beharko du manipulazioa, garabia haize-orratz eran jarri beharko dela.

3.– Instalatzaileak argi-, eta hots-alarmen funtzionamendua frogatzeko baliabideak izan beharko ditu.

II. KAPITULUA
OPERADOREAK

5. artikulua.– Dorre-garabiko operadore-txartela.

1.– Maiatzaren 17ko 175/1994 Dekretuak arautzen duen dorre-garabien operadore-txartel profesionala exijituko da, ekainaren 27ko 836/2003 Errege Dekretuaren xedapen iragankorretako lehenengoak xedatutakoarekin bat eginik. Txartel profesionalak eskuratzeko prozedura bateratu zuen, eta industriako segurtasuna-

1.– Todos los elementos del equipo deberán ser accesibles tanto para su mantenimiento como para su instalación o desmontaje, en su caso.

2.– El captador o sensor anemométrico deberá estar situado preferentemente en la parte superior de la grúa, en una posición que no se vea afectada por un posible apantallamiento de la estructura metálica y deberá ser visible, en todo caso, desde el suelo.

3.– La señal luminosa de alarma deberá actuar conjuntamente con una señal acústica (preferentemente sirena audible en toda la obra y que emita un sonido diferente al del avisador o zumbador de maniobra). La señal acústica podrá ser desactivada únicamente tras haber puesto en veleta la grúa (en la medida de lo posible, esta acción deberá realizarse de forma automática). En todos los casos, al volver a poner en servicio la grúa la señal acústica deberá volver a ser operacional.

La señal luminosa de prealarma deberá actuar con una señal acústica intermitente.

4.– Las señales luminosas deberán colocarse de forma que sean visibles por el gruista. A este respecto, se situarán preferentemente en la parte inferior de la pluma lo más próximas a la torre, en la botonera o en la cabina.

5.– Si el equipo dispone de aparato de visualización continua de la velocidad instantánea del viento, deberá instalarse preferentemente de manera que el gruista pueda seguir la evolución de la velocidad del viento.

Artículo 4.– Activación de alarmas.

1.– En caso de activación de la prealarma, el gruista deberá adoptar precauciones especiales en el manejo de la grúa, en previsión de que aumente la velocidad del viento o se produzcan rachas más fuertes, especialmente cuando se manipulen cargas con superficies importantes, debiendo proceder a la puesta en veleta o restringir su utilización, en su caso.

2.– En caso de activación de la alarma, el gruista deberá colocar inmediatamente la carga en el suelo o si no fuera posible, deberá terminar la manipulación en curso a la mayor brevedad, colocando la grúa en posición de veleta.

3.– El instalador deberá disponer de medios que permitan probar el funcionamiento de las alarmas luminosas y acústicas.

CAPÍTULO II
OPERADORES

Artículo 5.– Carnés de operador de grúas torre.

1.– Seguirá siendo exigible, en relación con lo establecido en la Disposición Transitoria 1.ª del Real Decreto 836/2003, de 27 de junio, el carné profesional de operador de Grúas Torre regulado por el Decreto 175/1994, de 17 de mayo, por el que se unifica el procedimiento para la obtención de los carnés profesiona-

ren arloan instalazioak, mantentze-lanak eta bestelako jardunak egiten dituzten enpresa baimenduentzako betebeharrak definitu zituen 175/1994 Dekretuak, baita obretako dorre-garabien operadoreenak ere.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoan maiatzaren 17ko 175/1994 Dekretuaren babespean emandako txartelek indarrean jarraitzen dute, ekainaren 27ko 836/2003 Errege Dekretuak onartutako MIE AEM-2 JTOen eremuan erabiltzeko.

6. artikulua.– Eskarmentua garabi-mugigarri autopropultsatuen operadore gisa.

Ekainaren 27ko 837/2003 Errege Dekretuaren xedapen iragankor bakarrak jasotzen duen garabi-mugigarri autopropultsatuak manejatzeko eskarmentuaren kreditazioa, MIE AEM-4 JTOetan adierazitako baldintzetan eskuratu ahalko da, aipatu txartela lortzeko derrigorrezkotasuna bete behar baino lehenago (2005eko urriaren 17a).

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa.– Obraren zuzendaritza-egiaztagiria agindu hau indarrean sartu baino beranduago izenpetzen den dorre-garabien kasuan, derrigorrezkoa izango da anemometroa instalatzea; beti ere, agindu honetan xedatutakoari jarraiki.

Bigarrena.– Hiru urteko epea ezarriko da dorre-garabietako operadore-txartela lortzeko, obretarako ez diren bestelako aplikazioen kasuan.

Hirugarrena.– Dorre-garabien kontserbazioan jarduten duten enpresek MIE AEM-2 JTOan ezarritako baldintzak egiaztatu beharko dituzte, indarrean sartzen denetik urtebeteko epean.

AZKEN XEDAPENA

Lehenengoa.– Industriaren segurtasunean eskumena duen zuzendaritzari ahalmena ematen zaio agindu honetan aurreikusitakoa exekutatzeko eta aplikatzeko behar diren jarraibideak eman ditzan.

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko abenduaren 16a.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua.
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

les y se definen las exigencias para las Empresas autorizadas que realizan las instalaciones, mantenimientos u otras actividades en materia de seguridad industrial, para los operadores de grúas torre para obras.

2.– Se consideran vigentes los carnés emitidos por la Comunidad Autónoma del País Vasco en el marco del Decreto 175/1994, de 17 de mayo, para su utilización en el ámbito de la ITC MIE AEM-2, aprobada por Real Decreto 836/2003, de 27 de junio

Artículo 6.– Experiencia como operador de grúas móviles autopropulsadas.

La acreditación de la experiencia en el manejo de grúas móviles autopropulsadas, a la que hace referencia la Disposición transitoria única del Real Decreto 837/2003, de 27 de junio, podrá realizarse, en las condiciones indicadas en la ITC MIE AEM-4, en cualquier momento anterior a la obligatoriedad de la obtención de dicho carné (17 de octubre de 2005).

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Primera.– Será obligatoria la instalación del anemómetro, en los términos establecidos en la presente Orden, en todas las grúas torre cuyo certificado de dirección de obra se suscriba con posterioridad a la entrada en vigor de esta Orden.

Segunda.– Se establece un plazo de tres años para la obligación de obtener el carné de operador de grúas torre relacionado con otras aplicaciones diferentes a las de obras.

Tercera.– Las empresas conservadoras de grúas torre deberán acreditar las condiciones establecidas en la ITC MIE AEM-2 en el plazo de un año desde su entrada en vigor.

DISPOSICIÓN FINAL

Primera.– Se faculta a la Dirección competente en materia de seguridad industrial para dictar cuantas instrucciones sean necesarias para la ejecución y aplicación de lo previsto en la presente Orden.

Segunda.– La presente disposición entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de diciembre de 2003.

El Consejero de Industria, Comercio y Turismo,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.